



2012KO ABENDUAREN 27KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamabiko abenduaren hogeita zazpian, iluntzeko zazpi eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Andoitz Garmendia Zubeldia, Maialen Aldasoro Aranburu, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Urtzi Iruin Arruti, Patxi Albisu Estensoro, Ane Irastortza Izagirre, Inazio Estensoro Eskisabel, Milagros Madrazo Rada, Felix Urkola Iriarte eta Juan Manuel Serna Portugal.

Haizea Mendia Iztueta zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Alkateak, bilkurari hasiera eman ondoren, azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

Une honetan Patxi Albisu zinegotzia aretotik irten egiten da.

II.- ITURGAITZAGAKO ERROTONDA LANEN 4. ETA 5. OBRA-EGIAZTAGIRIAK.-

6 H.J.A. -Iturgaitzaga-ko errotonda lanen obra zuzendaritza daraman IKAUR, S.L.-ko Miguel Salaberria ingeniariak lanen 4. eta 5. obra-egiaztagiriak luzatu ditu. Laugarren obra-egiaztagiriaren zenbatekoa EHUN ETA LAUROGEITA BI MILA BEDERATZIREHUN ETA HOGEITA LAU EURO ETA HIRUROGEITA BOST ZENTIMotakoa (182.924,65 €) da eta bosgarren obra-egiaztagiriaren zenbatekoa LAUROGEITA BEDERATZI MILA ZAZPIEHUN ETA LAUROGEITA BOST EURO ETA HAMABOST ZENTIMotakoa (89.785,15 €) da. Lan hauek GORAIKI, A.E.B. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hauek aztertu eta bere oniritzia eman die.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, 6 H.J.A. -Iturgaitzaga-ko errotonda lanen 4. eta 5. obra-egiaztagiriak onartzea erabakitzen du.

III.- KANPANDEGIKO ERROTONDA LANEN LEHEN OBRA-EGIAZTAGIRIA.-

"21.1 B.U.aren -Kanpadegi gunea- Urbanizazio Proiektua - 1. fasea bidegurutzea eta zubiak"-ko lanen obra zuzendaritza daraman Pedro Azkue ingeniariak, Pedro Izaskun



arkitektoak eta Juan Murua arkitekto teknikoak lanen lehen obra-egiaztagiria luzatu dute. Lanen lehen obra-egiaztagiri honen zenbatekoa BERROGEITA HIRU MILA BOSTEHUN ETA LAUROGEI EURO ETA HIRUROGEI ZENTIMOTakoa (43.580,60 €) da. Lan hauek GORAIKI KANPANDEGI, A.E.B. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, "21.1 B.U.aren -Kanpadegi gunea- Urbanizazio Proiektua - 1. fasea bidegurutzeta eta zubiak"-ko lanen 1. obra-egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

Une honetan Patxi Albisu zinegotzia bilkurara itzultzen da.

IV.- EUSKARAREN ERABILERA PLANA, PLAN ESTRATEGIKOAREN LUZAPENA.-

Udal honetako Osoko Bilkurak, 2008ko abenduaren 18an egindako batzarraldian, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian barneratzen den Plan Estrategikoa onartu zuen.

2011ko abenduaren 22an egindako bilkuran, Osoko Bilkurak, plan estrategiko hau 2012 urtera luzatzea erabaki zuen.

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politika Sailetik udal honi jakinarazi zaio Euskara Biziberritzeko Plan Estrategikoa garatzeko epea bukatzeaz dagoela eta bere gomendioa berritzea edo lehenagoaren luzapena egitea izan da.

Hori horrela eta Euskara eta Hezkuntza Batzordeak Osoko Bilkura honi proposatzen dio Lazkaoko Udalaren Euskara Biziberritzeko Plan nagusian barneratzen den 2009-2011 eperako Plan Estrategikoa, iaz 2012rako luzatu zena, 2013ra luzatzea onar dezala.

Irastortza zinegotziak (EAJ) galdetzen du ez al den berria onarpenera jartzen dena.

Kultura batzordearen presidentea den Bengoa zinegotziak erantzuten dio berrikuntzak sartu direla luzatu behar den plan honetan.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du ez daudela euskararen aurka eta alde bozkatu duela baina aspertzen hasita daudela dokumentazioa bi hizkuntzatan bidaltzeko eskatetik. Esaten du baita ere azkeneko aldia izango dela gai honekin malguak izango direnekoa eta hurrengoan neurriak hartuko dituztela.

Alkateak erantzuten dio esanda gelditzen dela eta baietz egia dela ez dela lehenengo aldia hau eskatzen duela esaten duenean.

Gaia bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin Lazkaoko Udalaren Euskara Biziberritzeko Plan nagusian barneratzen den 2009-2012 eperako Plan Estrategikoa 2013ra luzatzea onartzen du.

V.- 2013KO AURREKONTUA.-



Jarraian 2013 urterako aurrekontua aurkezten da osoko bilkurara bere onarpenerako. Aurrekontu honek udalarena berarena eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkartearena hartzen ditu bere barne.

Aurrekontu hauek Ogasun Batzordeak informatuak izan dira.

Goenaga zinegotziak, Ogasun Batzordearen presidente gisa, onarpenera aurkeztutako aurrekontuaren azalpena egiten du.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du aurrekontu honen aurka bozkatuko dutela eta hori beraien eskakizunei inolako jaramonik egiten ez zaielako eta hiru puntu azpimarratzen ditu: Bat, ekonomi eta enplegu arloan zerbait berria egitea eskatzen zutela merkataritza, autonomo eta tailer txikientzat; bi, proiektuen inguruan ikastolatik Parrokia aldera oinezkoen pasabidea egiteko azterketa, bariantean Lazkaomendi aldera oinezko bidea egiteko azterketa; eta hiru, Kanpandegiko errotondako obran meandro aldera oinezkoentzako espaloia.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du ez dutela gehiegi aztertzerik izan bestek beste euskaraz bakarrik bidali zaielako eta aurka bozkatuko dutela.

Alkateak EAJri erantzunez esaten dio EAJk egindako eskariei kasurik ez zaiela egin esaten duenean hori ez dela horrela, kudeaketak egiten ari direla bai ekonomia bai enplegu aldetik eta bestalde azterketen inguruan eskatutakoetan ez direla itxita dauden gaiak baizik eta hitzegitekoak direla.

Gaiaz zabal eztabaidatu ondoren, Osoko Bilkurak, aldeko 6 botu (Bildu) eta aurka-ko 6 botuz (EAJ, PSE-EE) eta alkateak bere kalitatezko botua aurrekontuaren alde erabiliz, 2013ko aurrekontuaren inguruan honako akordioak hartzen ditu:

Lehena.- 2013 urterako udal aurrekontua, bere espedientean dagoena, hasierako izaeraz onartzea. Aurrekontu honek Udalaren beraren aurrekontua eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkartearen aurrekontua hartzen ditu eta beraien sarrera eta gastuen kapitulukako laburpenak honako hauek dira:

2013KO UDAL BERAREN AURREKONTUA

SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENEKO ZERGAK	1.397.896,80 €
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	100.000,00 €
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	1.309.244,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	3.042.050,00 €
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	15.250,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENTZEA ETA HIRIGINTZAKO JARDUERETATIK ONDORIOZTATUTAKO BESTE SARRERA BATZUK	250.000,00 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	1.164.229,16 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	1.000,00 €

SARRERAK GUZTIRA	7.279.669,96 €
------------------------	----------------

GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	1.280.800,00 €
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZ. GAST.	3.268.864,24 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	100,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	560.490,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	1.299.552,52 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	127.500,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	501.000,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	241.363,20 €

GASTUAK GUZTIRA	7.279.669,96 €
-----------------------	----------------

2013KO LAZKAO LANTZEN, S.A.REN AURREKONTUA

SARRERAK:

VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANAKETA	331.062,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	500.000,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	175.158,00 €

SARRERAK GUZTIRA	1.006.220,00 €
------------------------	----------------

GASTUAK:

II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	66.342,00 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	59.343,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	620.115,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	260.420,00 €

GASTUAK GUZTIRA	1.006.220,00 €
-----------------------	----------------

2013KO UDALAREN AURREKONTU KONTOLIDATUA

SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENEKO ZERGAK	1.397.896,80 €
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	100.000 €
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	1.309.244,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	3.042.050,00 €
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	15.250,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANATZETIK ETA HIRIGINTZAKO JARDUERETATIK ONDORIOZ- TATUTAKO BESTE SARRERA BATZUK	581.062,00 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	1.164.229,16 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	501.000,00 €



IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	175.158,00 €
		<u>SARRERAK GUZTIRA</u>	<u>8.285.889,96 €</u>

GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	1.280.800,00 €
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	3.335.206,24 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	59.443,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	560.490,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	1.919.667,52 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	127.500,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	501.000,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	501.783,20 €
		<u>GASTUAK GUZTIRA</u>	<u>8.285.889,96 €</u>

Bigarrena.- Aurrekontu hau jendaurrean erakustea hamabost lanegunetako denboraldian, erreklamazio ondorioetarako.

Hirugarrena.- Jendaurreko denboraldian erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, aurrekontu hau behin betikotzat onartua joko litzateke espreski hartutako akordio berri baten beharrik gabe.

VI.- 2013KO PLANTILA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA.-

Jarraian, eta aurrekontuari lotutako dokumentu gisa, Osoko Bilkurara aurkezten dira bere onarpenerako 2013ko Udal Langileen Plantila Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda, bere espedientean aurkitzen direnak.

Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, 2013ko Lazkao Udalaren plantila organikoa eta lanpostuen zerrenda, bere espedientean daudenak, onartu egiten ditu.

VII.- "GIZA ESKUBIDEEN ETA EUSKAL PRESOAK" GAIAREN INGURUAN HERRIRAK AURKEZTUTAKO MOZIOA.-

Mozioak honela dio:

"Herrira mugimenduak, Giza Eskubideen Deklarazioaren edukia aintzat harturik, euskal presoek aplikatzen zaizkien espetxe-neurri salbuespenekoak indarrik gabe uztea eskatzen du.

Zehazki, sakabanaketa-politikari amaiera ematea eskatzen du, kartzelan dauden pertsonen eskubidea baitute zigorra etxetik hurbil betetzeko. Bestetik, gaixotasun larria duten hamahiru presoak libre gelditu daitezela eskatzen du eta Strasburgoko Europako Giza Eskubideen Auzitegiaren epaia bete dadila, eta beraz, aska ditzatela zigorra bete duten 67 presoak.



Salbuespen neurri hauek sufrimendu handia eragiten dute gizartean, zuzenean neurri horiek jasaten dituztenei, baita gizarte osoari ere. Bakearen eta giza eskubideen errespetuaren aldeko apustua garbia da. Sufrimendu hau buka dadin, neurri hauek desagerrarazteko, aski litzateke legeria arrunta aplikatzea.

Herrirak egiaztatu du gehiengo handiak bere egiten dituela aipatutako eskaerak. Horregatik, proposamena egiten die herritarrei giza eskubideen eta bakearen aldeko akordio sozial zabala egiteko, gutxienekoen taula bat presoen eta erbesteratuen problemari heltzeko, modu eraikitzailean eta egiazko konponbideak bilatu nahian betiere.

Eskaera honen atzen gizartea dagoela ikusarazteko, akordio sozial zabal honen ispilu izan dadin, Herrira mugimenduak manifestazio handi baterako deia egin du. Mobilizazioa Bilbon izango da, urtarrilaren 12an, goiburu honekin: "Giza eskubideak, konponbidea, bakea. Euskal presoak Euskal Herrira".

Horregatik guztiagatik, erabaki hauek hartzeko eskatzen diogu Lazkaoko Udalari:

- 1.- Espainiako Gobernuari eskatzea presoen eta haien hurbilekoen giza eskubideak errespetatzen dituen espetxe politika aplikatzeko. Neurri hauek zigorra bizilekutik hurbil betetzeko eskubidea eta osasun eskubidea bermatu behar dituzte, baita beraien zigorra bete duten presoen askatasuna eta zigorraren 3/4ak (edo 2/3ak) bete dituztenen baldintzapeko askatasuna.
- 2.- Udalaren kezka adieraztea astebururo presoen senitarteko eta lagunek sufritzen duten arriskua dela-eta, eta elkartasuna adieraztea sakabanaketaren biktima guztiei.
- 3.- Aditzera ematea Udala prest dagoela herriko bizilagun preso eta iheslarien giza eskubideen defentsan lan egiteko, eta haien senitarteko eta hurbilekoen egoera arintzeko.
- 4.- Horregatik guztiagatik, udal honek bat egiten du Herrira mugimenduak deiturik urtarrilaren 12an Bilbon "Giza eskubideak, konponbidea, bakea. Euskal presoak Euskal Herrira" goiburuarekin eginen den mobilizazio orokorrarekin, eta adierazten du prest dagoela akordio sozial zabal horren alde lan egiteko.
- 5.- Udal honek bat egiten du Lazkaoko Herrirak, urtarrilaren 12ko manifestaziorako deialdia egiteko, abenduan 31an, eguerdiko 13:00etan, herriko plazan burutuko duen elkarretaraztearekin.
- 6.- Udal honek erabaki honen berri emango die herritarrei, eta bakearen eta giza eskubideen errespetuaren aldeko lanean inplikatu daitezten animatuko ditu udalerriko bizilagunak."

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du berriro gauza bera errepikatzen dela behin eta berriro. Esaten du baita ere prozedura bat dagoela presoak kartzela politikako onurak lortu ahal izateko eta egin behar den bakarra prozedura hori jarraituz eskatzea dela. Esaten du baita ere Lazkaon elkarlana egin daitekela esaten dela baina gero mozioak behin eta berriro aurkeztea besterik ez dela egiten. Eta azkenik esaten du mozioaren aurka bozkatuko dutela eta ez presoen eskubideen aurka daudelako.



Irastortza zinegotziak (EAJ) esaten du presoen eskubideen inguruko beraien jarra-
ra behin baino gehiagotan azaldu dutela eta eskubide horien errespetua aldarrikatzen du-
tela, eta Eusko Legebiltzarrak 2006ko urriaren 6an gai honen inguruan onartutakoan be-
rresteren direla. Esaten du baita ere aldiz mozioan egiten diren mobilizazio deiekin ez du-
tela bat egiten. Eta bukatzen du esanez guzti horregatik abstenitu egingo direla.

Alkateak (Bildu) Sernari erantzunez esaten du mozioak eskatzen duena lege baten
betetzea dela eta lege hori bete dadin mobilizazio batzuetarako deiak onartzea eta beste
gauza bat dela lege horren aplikazioa emateko mugimenduak ematen diren ala ez diren
eta hori norberak ikusi behar duela.

Gaia bozketan jartzen da eta osoko bilkurak, aldeko 6 botu, aurkako botu 1 (PSE-
EE) eta 5 abstentzioz (EAJ) mozioa onartu egiten du.

VIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du aurreko osoko bilkuran hainbat mozio aur-
keztu zirela desjabetzeen inguruan eta guztiak mahai gainean utzi zirela, denen artean
mozio bakar adostu eta aurkeztu ote zitekeen aztertzeko. Esaten du baita ere ez dela ezer
egin.

Aldasoro zinegotziak, gizarte zerbitzuetako batzordearen presidente gisa, esaten
du bera gelditu zela zerbait prestatzekotan baina bere lana dela eta, ez duela denborarik
izan eta hurrengorako prestatuko duela.

Estensoro zinegotziak (EAJ) errotonden obra-egiaztagirien gaiari buruz esaten du
bilera bat izan zutela eta kezkatuta gelditu zirela eta ea kudeaketa hori nola dagoen gal-
detzen du.

Alkateak erantzuten dio Gipuzkoako Foru Aldundiari azaldu zaiola arazoa eta orain-
dik erantzunik ez dutela, arazoa konponduko dela uste badute ere.

Gai hau dela eta, sortutako kezka eta izan dezaken amaieraren inguruan zabal ez-
tabaidatzen da.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du,
gaueko bederatzia eta bost direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen
dudalarik.

